SORGIÑAREN BERSUAC

CARNAVALETAN

1

Milla bider bederatzi egun oneta
au amargarren urtia
Cristo zerutik jachisanetik
onelaco bitartia
pensatu degu atzo basuei
berso berriyak jarzia
iñok erozi guztabaditu
on dago gonbenenziya.

2

Gauza char asko esan onenda
guregatio campuan
orrelakorik probatubarik
sinistu ezinda nenguan
deskalabruak lenago ere
pasatzen ziran munduan
orrelakorik gertatu esteiñ
jarri nainuten contuan.

3

Persona batek encargatunau
berso berriyak jartzeko
ondo neurtuak esango gera
importarikan etzako
buru arin bat naikua ori da
baztar guztiak galtzeko
gauza utzaren zabiltze
zerba charrian sartzeko.

4

Atzo sorguiñ bat dala medio
egin dituzu gastuak
nolakuadau jakin dezaten
erriyak eta ausuak
lenago errege autua dago
kontuz eiteko pausua
deskuidatzen bada orainche
pagatu kodu gaissuak.

5

Leen ascotan emani emendu
guregatikan aitzera
goisalde darte beiñ ezgerala
erretiratzen echera
egindakorik ezdegu ukatzen.
iñoy deskuidatoigera
gure ondoriñ ibiltzeoteran
iruritutzen zait bera.

6

Erri guztian esan omenda
guk granujiak gerala
gauza charrikan iñori ingabe
ori aitzia den pena
emacume bat [illegible]
eta ala Jesusena
kastigatzera beldur ezpanitz
esango nuque izena.

7

Orretik diñue bezela ez gera
ondik ibilli izandu
beste askoren gisan ori ere
gezur galanta esandu
alkagüetaran artetik eziñ
beñe gauzonik zuzendu
lenago eguauz galantak ezan
gero ukatu egitendu.

8

Ondik ez gera ibilli izandu
orrek diñuan bezela
guk esatia esta on[illegible]o baña
jentiak jakiñ dezala
testimonio bete nai gaitu
Cristo juduak bezela
gure Jaungoikoa olakogandik
arren aparte gaizala.

9

Gauren onetan laguntzen badit
Jaungoikoaren graziak
oraiñ emendik ezangoditukt
dakizkidaren guziak
bera bezelakuak dirala
nun bait uztedot gustiak
leku guchitan egongodira
zu bezelako trastiak.

10

Lenago okerra bagiña gere
ezgaitu asko zuzendu
emakum orrek bere demboran
zenbat orrelako egindu
bersuak oria jarri [illegible]gelako
asko sentitu omendu
castigantzia uste zue da
iñola ere ezindu.

11

Bastarrik kanton gezur kontari
estabill oso ichusi
beste olaco bat euscal erriyan
eztegu iñoc icusi
dozenacho bat berso jarchia
esaldu ori merezi
amar zentimo paper bacoitza
gusto duenac erosi.

12

Orra amabi bersorekiñ
acabatuditut danac
obiauac jarricozaizco
oyec ezpadira onac
atso sorgiñ bat dala medio
izandudirade danac
candela ori jaso deitzela
oraiñ cofradico danac.

Imprenta de J. López.—Vergara